

Euskadiko Ekonomia Itunaz herritarrek duten pertzepzioari eta egiten duten balorazioari buruzko azterketa

(2025eko apirila)



SILVÁN & MIRACLE
ESTRATEGIAS DE ASUNTOS PÚBLICOS—



- Euskadiko Ekonomia Itunaz herritarrek duten pertzepzioaren eta egiten duten balorazioaren gakoak aztertzea da xedea, horren inguruko ezagutza-maila, jarrerak eta iritziak aztertuz bereziki, bai eta Euskadiren erronken aurrean ondorio soziopolitikoak duten dimentsioetan duen eragina ere (eskaerak, espektatiba politikoak eta erantzuteko gaitasuna).
- Arlo horien azterketa sakona eginez gero, hobeto ulertu ahal izango dugu herritarrek Euskadiko autogobernuaren bektore nagusi hori nola hautematen duten eta horri buruz duten pertzepzioa zein planotan hedatzen den:
 - PERTSONEN EZAGUTZA EDO EZAGUTZA FALTA SEGMENTUTAN ISLATZEN DEN ZEHAZTEA
 - AUTOGOBERNUARI ETA EKONOMIA-ITUNARI BURUZKO PERTZEPZIOA EZAGUTZEA
 - EKONOMIA-ITUNAK SORTZEN DUEN ONURA SAKONTZEA ETA HEDATZEA
 - JARRERA POLITIKOAN BEKTORE ERABAKIGARRITZAT HARTZEN DEN AZTERTZEA

- **Bi foku-talde** egin dira, biztanleriaren bi xede-talde espezifikorik Euskadiko Ekonomia Itunari buruz duten ezagutza-maila aztertzeko:

Foku-taldeak	Ezaugarriak
1. TALDEA: online (6 pertsona) ○ Martxoaren 26an, asteazkena, 19:00etatik 21:00etara ○ Online: TEAMS Plataforma	• 35-50 urte, prestakuntza-maila ertaina/altua, errenta-maila ertaina/altua, ohiko boto-emaileak, 3 hiriburuetakoak (Bilbo, Donostia eta Gasteiz), gutxienez 2 euskaldun.
2. TALDEA: presentziala (7 pertsona) ○ Martxoaren 27an, osteguna, 18:00etatik 20:00etara ○ Presentziala: BILDARTERen bulegoa	• 51-70 urte, prestakuntza-maila ertaina/baxua, errenta-maila ertaina/baxua, ohiko boto-emaileak, Bilbokoak eta inguruetakoak, gutxienez 2 estatuko gainerako erkidegoetan jaioetakoak.

	<u>Orrialdea</u>
1. Euskadiko Ekonomia Itunari buruzko lehen ideia	4
2. Euskadiko Ekonomia Itunari buruzko ezagutza-maila	7
3. Autogobernuari eta Euskadiko Ekonomia Itunari buruzko pertzepzioa	15
4. Euskadiko Ekonomia Itunaren onurak	23
5. Hauteskunde-portaera eta Euskadiko Ekonomia Ituna	27
6. Euskadiko Ekonomia Ituna vs. estatuko gainerakoa	29
7. Euskadiko Ekonomia Itunari buruz gizarteak dituen iritzia	33
8. Euskadiko Ekonomia Itunaren prospektiba	35
9. Euskadiko Ekonomia Itunari buruzko azken ondorioak	39

1. Euskadiko Ekonomia Itunari buruzko lehen ideia

EUSKADIKO EKONOMIA-ITUNARI BURUZKO “TOP OF MIND” EDO LEHEN IDEIA

5

- Parte-hartzaileei galdetzen zaienean ea zer den burura datorkien lehen gauza Euskadiko Ekonomia Itunaz pentsatzean, hauek dira erantzunak:



HITZEN HODEIAN IKUS DAITEKEENEZ, EUSKADIKO EKONOMIA-ITUNAREKIN GEHIEN LOTZEN DIREN KONTZEPTUAK HONAKO HAUEK DIRA: **PRIBILEGIOA, AUTOGESTIOA, ERANTZUKIZUNA ETA PRIBILEGIO HISTORIKOA**

- Euskal gizartean **modu inkontzientean oso integratuta** dagoen gaia da, eta Euskadiko **bizi-kalitatearen eta ongizatearen** bidez nabarmentzen da.

*"Barneratuta daukat, beti izan dugun zerbait delako, eta **egunerokoan jabetu gabe bizi eta gozatzen dugulako**"*

*"Diru-bilketa **selektiboago horretatik eratorritako zerbitzuetan** konturatzen zara, baldintzak askoz hobeak direlako hemen"*

BALIO BEREIZGARRITZAT HARTZEN DA

*"Alde **ikaragarria nabaritzen dut** soldatan kongresuetan elkartzen garenean, soldata 2 edo 3 aldiz handiagoa da"*

*"Bakoitzak bere probintzian egiten du errenta-aitorpena, **eta ogasun bakoitzak bere bereizgarriak ditu**"*

ESTATUAREKIN ALDERATUTA NABARMENDU EGITEN DA

*"Harro **sentitzen zara orduan**, zergez edo beste erkidego batzuekiko soldaten aldeaz hitz egitean"*

*"Beste **lurralde batzuetako pertsonekin hitz egitean** konturatzen zara zertan nabarmentzen den gehiago"*

2. Euskadiko Ekonomia Itunari buruzko ezagutza-maila

ZER DAKIGU EUSKADIKO EKONOMIA ITUNARI BURUZ?

- Oro har, **ezagutza nahiko azalekoa da**. 35-50 urteko pertsonek ezagutza handiagoa dute, baina oso oinarritzkoa, eta **beren eginkizunetan oinarritua**; eta 51-70 urteko pertsonek **eskubide historikotzat** hartzen dute, ezagutzen ez badute ere.

BEREN EGINKIZUNETAN OINARRITUTAKO EZAGUTZA

*"Hemen biltzen dena eta estatuak hemengo herritarrei eskaintzen diena dago; **gobernu zentralak zerbitzu horien kostua kuantifikatzen du, eta hemengo gobernuak ordaintzen du**"*

*"**Zuri dagozkizun eskumen batzuk dira**, estatuari ez dagozkionak, eta zuk kudeatzen dituzu, administrazio erantzule bihurtuz"*

ESKUBIDE HISTORIKO BATEAN OINARRITUTAKO EZAGUTZA

*"**Erdi Arotik datorren sistema ekonomikoa da**, eta Ekonomia Itun bihurtu zen; ehun urte baino gehiago izango ditu"*

*"**Eskubide historiko bat da**, eta euskaldunok Espainiako Estatuko kide izateko dugun modua, gure Ekonomia Itun berezia izateko baldintza horrekin"*

- Gaiari buruzko **ezjakintasuna orokorra** da, **informazio eta interes faltagatik**, eta ezagutzen denean horren berri ustekabeen edo modu pertsonalean izan dutelako izaten da.

EZ EZAGUTZEKO BI ARRAZOI NAGUSI

"Administrazioa ez da arduratu hori zabaltzeaz, eta gu, gizarteko kide garen aldetik, ez gara arduratu informazio hori bilatzeaz"

- Era berean, elkarriketa sozial edo mediatikoan agertu ohi ez den gaia da, eta **gehiago kezkatzen gaituzten beste gai batzuek eklipsatzen dute** gai hori.

*"Gaur egun, **gehiago kezkatzen gaituzte gai globalek** eta egungoek"*

*"Guk **erretiroaz, gizarte-segurantzaz edo errenta-aitorpena egiteko moduaz** hitz egiten dugu"*

USTEKABEAN EZAGUTZEA

*"Oposizioak egitean hasten zara ezagutzen, errenta-aitorpena egiten duzunean, edo lanean hasten zarenean, hau da, **heldu egiten zarenean**"*

*"**Egungo egoera eta herritarren segurtasuna** gero eta okerrago daudela ikusten dugu"*

*"**Osasuna** da interesatzen zaiguna, eta **garraio publikoaren prezio berriak**"*

- Oso gutxik ezagutzen dute, baina ezagutzen dutenek KUPOari buruzko **oso ezagutza orokorra eta praktikoa** dute, xehetasunetan sakondu gabe.

"Zuk kudeatzen ez dituzun
transferentziengatik
estatuari ordaintzen zaiona"

"Estatuari ordaintzen diozun
zenbateko bat da, **zuk ez**
duzunaren trukean"

"Urte hasieran *estatuak*
dituen *gastuetatik ordaintzen*
duzun ehunekoa da"

"*Hemen ez dituzun*
transferentzia guztiak
ordaindu egin behar dituzu"

"Ordaindu behar ditugun zergak
erabakitzen dira, **aldundiek**
biltzen dute, eta kupoa
ordaintzen zaio *estatuari*"

"Eusko Jaurlaritzako
aurrekontuen plan orokorrean
estatuko gobernuarekin egiten
duten akordioa"

- Badirudi **ezagutza handiagoa dela** adin ertaineko jendearen artean, eta **gazteen artean ezjakintasuna** ia erabatekoa dela.

NAGUSIENEN EZAGUTZA

*“Nik uste dut gehiago dakitela, gehiago egokitu zaielako egunerokoan, paperak egitean, zergetan, burokrazian... eta **gehiago borrokatzea egokitu zaielako**”*

*“Politikoki inplikatuago daude, horregatik uste dut Autonomia Estatutua izan zenean garai hura bizi izan zutela, gehiago dakite, **haientzat lehen pertsona bizi izan dituzten lorpenak direlako**”*

GAZTEENEN EZJAKINTASUNA

*“Nire alabek 30 urtetik 33 urtera bitartean dituzte, eta horietako batek EAZ ikasi zuen eta Kutxabanken egiten du lan, eta **uste dut nik baino gutxiago dakiela horretaz, ez dute ideiarik ere**”*

*“Ez dut uste gazteek gaiaz askorik dakitenik, **nire bilobak ekonomia-ikasketak egin zituen, eta ez diot inoiz horri buruz hitz egiten entzun**, beren eguneroko bizitzan erakargarria eta baliagarria ez denez, ez dakite ezer”*

EUSKADIKO EKONOMIA ITUNARI BURUZKO INFORMAZIOA, INTERESA ETA KOMUNIKAZIOA

- 35-50 urteko pertsonen informazioa eskuratzeko eta zabaltzeko zailtasuna eta interesik eza aipatzen dituzte.

INFORMAZIO FALTA

"Oso zaila da jakitea informazioa nondik lortu dezakegun, hainbeste erakunde daudenez"

"Ez dakizu nora jo informazioa eskuratzeko, eta administrazioak ez du inolako kanpainarik egiten autogobernuaren edo kupoaren berri emateko"

INTERES FALTA

"Gai hori ez da batere erakargarria, eta halako asperdura bat eragiten du"

"Nik esango nuke gai hori ez dela oso interesgarria, oraintxe egin beharreko zerbait ez bada, ez da kezkatzen nauen zerbait"

- Bestalde, 51-70 urteko pertsonen uste dute informazio falta hori nahiko gai adostua delako eta kezkarik sortzen ez duelako gertatzen dela.

"Ziurtzat jotzen da ondo dagoen zerbait dela, eta funtzionatzen duen bitartean ez gara arduratzen"

"Jendeak ez dio buelta askorik ematen, badaukagu, funtzionatzen du, ondo doakigu eta ez gara horretaz arduratzen"

"Ez digute ezer esaten, Euskadirentzat onuragarria delako, eta ziurtzat jotzen dugu ondo dagoela"

- Bi taldeetan modu espontaneoan eta aho batez aipatzen da Euskadiko Ekonomia Itunari buruzko informazioa zenbait une estrategikotan emateko aukera, errenta-aitorpena egiten denean, adibidez.

*“Errenta-aitorpena hasten den honetan, zergak nora doazen edo **beste erkidego batzuekin alderatuta zer pribilegio ditugun** zuzenago erakutsi beharko lukete”*

*“Errenta-aitorpena egiteko kanpainetan, ez legoke gaizki Euskadiren berezitasunen berri ematea, **hor pertsonalki eragiten baitizu, eta ordaintzen dituzun zergen balioa azal dezakete horrela**”*

*“Errenta-aitorpenaren gaia baliatuz, eskutitz bat **bidal dezatela paskin batekin, horrek zer inplikatzan duen, zertarako erabiltzen den eta zer abantaila dituen azaltzeko**”*

**ERRENTA
RENTA24**

**ERRENTA
2024**

errenta 2024

*“Berezkoa dugun zerbaitez harro **gaudela** adierazteko eta **une horiek aprobetxatzeko**, urtean zehar ez baita horren berri emateko une egokirik aurkitzen”*

*“Infografia baten bidez eman liteke informazioa errenta-aitorpena egitean, **zeregin didaktiko moduan, gure zergek zertan eragiten duten erakutsiz eta Euskadiko Ekonomia Itunak betetzen duen zereginaren berri emanez**”*

*“Errenta-aitorpenean gure zergak nora doazen nabarmentzea **aukera ona da kotizatzen hasten den jendeak horri buruz pixka bat jakin dezan** eta dirua nora doan jabetu dadin”*

- Horrez gain, guztiek aipatzen dute Euskadiko Ekonomia Ituna gazteenei hurbiltzeko dagoen beharra.

*“Funtsezkoa da ulertzea, eta, horretarako, azalpen errazak behar dira, **denok ezagutzen dugun hizkuntza batean, ez hain hizkuntza teknikoan**”*

*“Eguneroko bizitzako adibide argien bidez hurbilduko nuke, **modu didaktiko eta bisualean, edo Instagram, YouTube edo TikTok bezalako sare sozialen bidez**”*



**EUSKADIKO
EKONOMIA
ITUNA**

“Gazteak dauden kanal bat aukeratu behar da, ez da edonola egin behar, eta funtsezkoa izango litzateke modu bisual eta erakargarrian egitea”

3. Autogobernuari eta Euskadiko Ekonomia Itunari buruzko pertzepzioa

- 35-50 urteko pertsonen artean, **pribilegio ekonomikoaren** esanahia ematen zaio, eta **egonkortasun ekonomiko eta sozial handia** ahalbidetzen du.

ABERASTASUNA

“Aberastasuna banatzeko modu bat da, zergen bidez egiten dena, maila horizontalean eta bertikalean, erakundeetan eta biztanleen artean”

ONURA

*“Historian zehar horren alde borrokatu da, eta **orain horretaz gozatu dezakegu eta onura atera** diezaiokegu”*

NAGUSITASUNA

*“Enpresa-mailan eta posizionamendu-mailan lehiatzeko abantaila bat da, **epe luzerako bizi-kalitate ona ahalbidetzen duena**”*

- Bestela, 51-70 urteko pertsonak, gai ezezaguna izan arren, **esanahi identitarioagoa** ematen diote, **eskubide historiko gisa eta pribilegio gisa**.

IDENTITATEA

*“Sistema propioa eta autogestionatua da, **independentziaz hurbil dagoena**”*

PRIBILEGIOA

*“**Auzo-elkarte moduko bat da**, eta guk dena geure erara egiteko pribilegioa dugu”*

ESKUBIDEA

*“Euskal gizarteak historikoki irabazi duen zerbait da, **gainerakoetatik bereizten zaituen bereizgarri bat**”*

- Euskadiko Ekonomia Itunaren **esanahi identitarioa** oso lotuta dago autogobernuarekin, ongizate handiagoa izatea dakar, eta erantzukizun handia eskatzen du (*"Botere handi batek erantzukizun handia eskatzen du"*), eta **onura** gisa ikusten da.

ERANTZUKIZUNA

*"Diru kopuru hori guztia kudeatzen jakitea eta diru hori zertan gastatu erabakitzea dakar, **zure ongizatea horren araberakoa baita**"*



AUTOGOBERNUA

*"Autogobernu-maila handiagoa duen lurralde-funtzionamenduko sistema bat da, **gero eta transferentzia gehiago** lortzen dituen"*

ABANTAILA

*"Beste erkidego batzuetan baino hobeto egoteko aukera ematen du, eta nabaritzen da, **talentua erakartzea eta aberastasun handia sortzea** eskatzen duelako"*

- Haustura gertatzen da Euskadiko Ekonomia Itunak benetan duen garrantziaren eta horri buruz dugun ezagutzaren artean.

*"Oso garrantzitsua da, zalantzarik gabe,
beste gauza bat da guk balio hori ematea
eta daukagunaz jabetzea"*

*"Bere garaian guztion lanari eta borrokari
esker ezarri zen, ez dator ezerezetik, **baina**
ez gara hura ezagutzeaz arduratzen"*

*"Beste leku batzuetan baino hobeto
bizi gara, neurri batean, horri esker,
baina ez dugu galdetzen zergatik"*



*"Euskadin eragiten digun guztiarekin
zerikusia duen sistema da, baina
jendeak ez du ezagutzen"*

- Foru-aldundiek eta foru-ogasunek lotura handiagoa dute, eta Eusko Legebiltzarra gutxiago agertzen da.

"Aldundiek jasotzen eta banatzen dute guztia"

"Foru-aldundiekin lotzen dut"



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

*"Ogasuna eta aldundia
dira burura datozkidan
lehenak"*

*"Hemen **aldundiek**
agintzen dute"*

*"Legebiltzarra ere bai, hau
Legebiltzarrean bozkatuko dela
pentsatzen dudalako"*

- Identifikazio-sentimendu komun bat dago: 35-50 urte bitarteko pertsonak harro sentiarazten dituen sistema gisa identifikatzen dute, eta 51-70 urteko pertsonak sistema propiotzat dute, lurraldearekin eta lanarekin duten harremanean.

HARROTASUN-SENTIMENDUA

*"Niri Euskadiren ezaugarri berezia iruditzen zait, eta harro sentitzeko modukoa, **duen berezitasunagatik**"*

"Azpimarratu beharreko zerbait da, beste inork ez duen zerbait delako"

KIDE IZATEAREN SENTIMENDUA

*"Gurea den zerbait da, **hemendik egiten delako horren parte sentitzen gara**, edo zuzenean eragiten dizuna, **Euskadiri atxikitako pertsonak garen heinean**"*

*"Imajinatu egiten ez genituen gauza askotan ere **eragiten digu**"*

- Bi taldeetan, irudi positiboa jaso da, eta ahots kritiko batzuk sortu dira. 35-50 urteko pertsonen artean, aipatzen da, sistemak funtzionatzen jarrai dezan, emaitza ekonomiko onak ziurtatzeko *“etengabeko erantzukizuna”* behar dela, eta, 51-70 urteko pertsonen artean, **karguen bikoiztasuna** kritikatzeko da.

*“Kanpotik pribilegiatuak garela
esaten digutenean, horrela
sentitzen dut erabat”*

*“Azkenean, sistema horri esker
hazten jarraitzen dugu, oso
positiboa da”*

*“Positiboa da, egunerokoan
nabaritzen delako eta ondo
bizitzera ohituta gaudelako”*

ETENGABEKO ERANTZUKIZUNA

*“Neurri handian, positiboa dela iruditzen zait,
diru hori kudeatzen jakiteko eta kanpoko
laguntzarik gabe ahalik eta ondoen egiteko
erantzukizun hori hortxe dago, **etengabeko
erantzukizun** hori”*

GEHIEGIKERIA INSTITUZIONALA

*“Negatiboa iruditzen zait: aprobetxategi asko
dago hemen, Eusko Jaurlaritzak, aldundiak,
udalak; politikari gehiago daude, eta
bikoiztutako postu gehiago”*

- Euskadiko Ekonomia Ituna pertsona bat balitz nolakoa izango litzatekeen galdetzen denean, **ezaugarri** hauek aipatzen dira:

"50-60 urte ingurukoa"

"Serioa, euskalduna, noblea eta isila"

"Gasteizen egindako Mercedes bat izango luke, baina Bizkaikoa izango litzateke"

"EAJkoa izango litzateke, Aitor Estebanen edo Ortuzarren tankerako pertsona bat imajinatzen dut"

"Gizona izango litzateke"



"Ile zuriren bat izango luke"

"Estilo klasikoa izango luke, trajearekin eta maletatxoarekin"

"Ekonomiako, politikako edo industria-sektoreko unibertsitate-ikasketekin"

"80ko hamarkadako musika entzungo luke, Mocedades, eta euskaraz, Benito Lertxundi"

Iturria: AAK sortutako irudia, parte-hartzaileek deskribatutako ezaugarrietatik abiatuta

4. Euskadiko Ekonomia Itunaren onurak

- Modu naturalean, Euskadiko Ekonomia Itunak ematen duen balioa ongizatearekin eta egoera ekonomiko onarekin identifikatzen da argi eta garbi, bai eta bizi-kalitatearekin eta zerbitzuekin ere.

ONGIZATE EKONOMIKOA

*"Enpresa mailan, Espainiako batez bestekoa baino BPG handiagoa dugu, eta horrek **soldata hobeak eta lan-baldintza hobeak** sortzen ditu"*

*"Zerga horiek inbertitu egiten dira berriro, eta, horrela, hemen alferrik galdu ez diren sentrazioa dugu, **hemen berriz inbertitzen da, hemen geratzen da eta nominan nabaritzen da**"*

*"Kanpora ateratzen zarenean konturatzen zara batez ere, Espainiako beste inguru batzuetan bizi den jendearekin konparatzen duzunean, **gure ekonomia oso ondo doala** jabetzen zara"*

KALITATEZKO ZERBITZUAK

*"**Igartzen da** zergak **transferitutako arlo guztietan** inbertitu direla berriro, **zerbitzu hobeagoak** sortuz: medikua, errepideak, garraioa, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak"*

*"**Anbulantzien ekipamenduan nabaritzen da**, nire alaba diabetikoa da, eta behar duen guztia ematen diote: oxigeno-aparatuak ere ematen dira, eta beste alde batzuetan zure kabuz eskuratu behar dituzu"*

*"**Garraio publikorako laguntzetan** nabaritzen da, Eusko Jaurlaritzak bere kabuz luzatu behar zituen, Espainian luzatu ez arren"*

- 35-50 urteko pertsonak uste dute garapen ekonomikoan eta industrialean nahiz Euskadiko autogobernuan islatzen direla hobekien Euskadiko Ekonomia Itunaren onurak.

"Bai garapen ekonomiko eta industrialak, bai Euskadiko autogobernuaren zutabeak, biek pisu handia dute, eta kontua ez da gainerakoetan gehiago egitea, oso zaila baita haien mailara iristea; horietan ari da gertatzen aurrerapen handiena, eta egonkorrenak dira"

"Azkenean, politiken garapena aipatu ditugun aurreko bien mende dago erabat, dirurik gabe ezin direlako garatu"

"Uste dut ez dela nabaritzen erakundeak herritarrengandik hurbilago egotearena"

Garapen ekonomiko eta industrialak

- Inbertsioak, enpresak eta talentua erakartzea/atxikitzea
 - Enplegu-tasa txikiagoa
 - Kalitate handiagoko enplegua
- Azpiegitura eta garraio politikak garatzea:
 - Errepideak, trenak, autobusak, tranbia, metroa...
- Lehen sektorearen defentsa
- Finantza-ahalmen handiagoa izateko gaitasuna: enpresetan egindako inbertsioak sustraitzea indartzeko



Herritarrengandik hurbil dauden tresnak

- Aberastasuna sortzeko eta birbanatzeko eta justizia fiskala lortzeko oinarritzko tresna
- Gure zerga-sistemak modu arin eta azkarrean egokitzea krisi ekonomikoan edo larrialdi egoeren aurrean (adibidez, COVID)
- Gure zerga-sistemak herrialdearen errealitate sozioekonomikora egokitzea
- Kudeaketa eraginkorragoa garatzeko aukera ematen du, besteak beste, iruzur fiskala murrizten laguntzen duena
- Herritarren premiekin bat datorren udal-finantzaketa
- Lurralde-orekari aurre egiteko aukera ematen digu



Euskal autogobernuaren zutabeak:

- Subiranotasun fiskala
- Euskaditik kanpo hartutako erabakien mendekotasuna murriztea
- EAEko ongizate-estatusa mantentzeko funtsezko tresna



Gizartearen erronkekin terrokatutako politikak garatzea

- Hezkuntza
- Etxebizitza:
 - Erosketa eta alokairurako inbertsioak eta zerga-kenkariak
- Pertsonak zaintzea:
 - Osasun sistema - Osakidetza
 - Gizarte zerbitzuak: adinekoen eta mendeko pertsonen zaintza
- Erronka demografikoa:
 - Familia politikak, hazkuntzarako laguntzak eta zerga-kenkariak
- Ingurunea eta natura babesteko ingurumen-politika:
 - Parke naturalak, ibaiak
 - Biosferaren erreserbak



Euskadiko Ekonomia Itunaren onurak islatzen dituzten dimentsioak biltzen dituen taula

- 51-70 urteko pertsonen artean, Euskadiko autogobernuaren zutabea da gainerako guztia bultzatzen duena; azken urteetan, garapen ekonomikoak eta industrialak okerrera egin duela esaten da, eta gizartearen erronkekin lerrokatutako politiken garapenak nolabaiteko garrantzia hartzen du zehazten denean.

*“Euskadiko autogobernua da **boterea eta onura** hobekien islatzen dituen”*

*“Industrian arazoak sortu dira, horietako asko alde egiten ari direlako, eta **horien sustraitzea indartu** behar da”*

*“Orain, xehetasun handiagoz ikusten dudanez, **hobeto ulertzen dut politikekin zer esan nahi duen**, gure eguneroko kontuak dira”*

Garapen ekonomiko eta industrialak

- Inbertsioak, enpresak eta talentua erakartzea/atxikitzea
 - Enplegu-tasa txikiagoa
 - Kalitate handiagoko enplegua
- Azpiegitura eta garraio politikak garatzea:
 - Errepideak, trenak, autobusak, tranbia, metroa...
- Lehen sektorearen defentsa
- Finantza-ahalmen handiagoa izateko gaitasuna: enpresetan egindako inbertsioak sustraitzea indartzeko

Euskal autogobernuaren zutabea:

- Subiranotasun fiskala
- Euskaditik kanpo hartutako erabakien mendekotasuna murriztea
- EAEko ongizate-estaturia mantentzeko funtsezko tresna



Herritarrengandik hurbil dauden tresnak

- Aberastasuna sortzeko eta birbanatzeko eta justizia fiskala lortzeko oinarritzko tresna
- Gure zerga-sistemak modu arin eta azkarrean egokitzea krisi ekonomikoan edo larrialdi egoeren aurrean (adibidez, COVID)
- Gure zerga-sistemak herrialdearen errealitate sozioekonomikora egokitzea
- Kudeaketa eraginkorragoa garatzeko aukera ematen du, besteak beste, iruzur fiskala murrizten laguntzen duena
- Herritarren premiekin bat datorren udal-finantzaketa
- Lurralde-orekari aurre egiteko aukera ematen digu

Gizartearen erronkekin lerrokatutako politikak garatzea

- Hezkuntza
- Etxebizitza:
 - Erosketa eta alokairurako inbertsioak eta zerga-kenkariak
- Pertsonak zaintzea:
 - Osasun sistema - Osakidetza
 - Gizarte zerbitzuak: adinekoen eta mendeko pertsonen zaintza
- Erronka demografikoa:
 - Familia politikak, hazkuntzarako laguntzak eta zerga-kenkariak
- Ingurunea eta natura babesteko ingurumen-politika:
 - Parke naturalak, ibaiak
 - Biosferaren erreserbak



Euskadiko Ekonomia Itunaren onurak islatzen dituzten dimentsioak biltzen dituen taula

5. Hauteskunde-portaera eta Euskadiko Ekonomia Ituna

- Euskadiko Ekonomia Ituna ez da elementu esanguratsutzat hartzen botoa emateko orduan, parte-hartzaileek beste alderdi batzuk lehenesten baitituzte.

*“Gehiago erreparatzen diot **agintariari eta aurrez** nola egin duen izaten dut kontuan”*

*“Modu estrategikoan bozkatuko dut, **nahi ez** dudan bat atera ez dadin”*

- Hausnarketa txiki bat egiten da hauteskunde autonomikoak edo orokorrak egiten direnean, eskumen gehiago irabazteko mekanismo gisa, baina, azkenean, pentsamendu horrek ez du eraginik izaten botoa eman behar zaion alderdian.



*“Orokorretan, **gehiago pentsatu beharko litzateke**, eragin horrekin lortzen baitugu ematen digutena”*

*“**Gehiago pentsatzen dut autonomikoetan**, orduan ikusten baitut Madrilen indar handiagoa izan dezaketela eta eskumen gehiago eskuratu ditzaketela”*



6. Euskadiko Ekonomia Ituna vs. estatuko gainerakoa

- Estatu mailan, Euskadiko Ekonomia Itunak kontrako jarrerak sortzen ditu, kanpotik pribilegio eksklusibo gisa ikusten delako.

*"Beti entzuten dut esaten euskaldunei **eskatzen duten guztia ematen zaiela**, pribilegiatuen moduan tratatzen dituztela"*

*"Uste dut **pribilegiatutzat ikusten gaituztela, baina zentzu txarrean**, esaten dute Euskadik ez duela besteei bezalako ekarpenik egiten"*

*"Irudi horrek KUPO horren kalkuluarekin du zerikusia, **batzuek ez dakite zenbaki hori nola ateratzen den, eta gaizki iruditzen zaie**"*

- Badirudi gehiago hitz egiten dela horri buruz Estatuko gainerako lekuetan, kritikatzeko, eta Euskadi barruan ez dela asko goraipatzen.

*"Kanpoan inbidiak sortzen ditu beti jendearekin hitz egiten duzun bakoitzean, eta **hemen ez dugu planteatu ere egiten**"*

*"Zerbait entzuten den bakoitzean, **politikariek asmo bikoitzarekin sortzen duten zarata** guztiagatik da"*

*"Alamena ematen dute, jendeak irratian edo beste albistegi batzuetan **informazio desegokia entzuten duelako**"*

- Estatukoa baino sistema ekonomiko hobea dela uste da, historikoki egindako autogestio onaren ondorioz.

*“Autonomia-erkidegoa modu egokian eramaten
jakin da, **aberastasuna sortu du beti eta
hazkundera etengabea da aspaldidanik**”*

*“**Ondo kudeatzen da**, gauza ona delako; hainbat
urtetan gaizki kudeatu izan balitz, agian jada ez
litzateke egongo”*

- 35-50 urtekoen artean, uste dute Euskadiri egiten diola **mesede gehien**, eta 51-70 urtekoen artean, berriz, biei egiten diela **mesede**, eta are gehiago estatuari.

EUSKADIRENTZAKO ONURA

*“Euskadiri egiten dio **mesede gehien**,
autonomia-erkidego aberatsenetakoa garelako;
horregatik, inbidia digute hor behean”*

*“Nik uste dut **mesede handiagoa egiten
digula guri, beti KUPO jakin bat
ordaintzen**ari garelako, baina funtsean
gastua beti handiagoa izango da”*

BIENTZAKO ONURA

*“Nik uste dut **beti parean geratuko garela**,
ez digutelako utziko onura soilik
ateratzen”*

*“Nire ustez, Estatuak onura handiagoa
jasotzen du; izan ere, **biztanleria eta BPG
kontuan hartuta**, dagokiguna baino **diru
gehiago ordaintzen dugu**”*

- Euskadiren egoera ekonomikoa **ontzat jotzen da**, eta nabarmenagoa da beste erkidego batzuekin alderatzen denean.

*"Beste erkidego batzuetan,
kaleetako pobrezia hemen baino
gehiago nabaritzen da"*

*"Bidaiatzen duzunean Euskadiko
ekonomia onaz jabetzen zara"*

*"Hemen oso ondo bizi gara, eta
Burgos zeharkatzen duzunean
nabaritzen duzu"*

- Euskadiren arrakasta ekonomikoaren zati gisa onartzen da Euskadiko Ekonomia Itunaren eragina, baina ez da arrazoi bakartzat hartzen, beste faktore erabakigarri batzuk baitaude.

*"Nire ustez, **zerikusi handia du**, industria eta enpresa-sarea
baitira dirua ekartzen dutenak, aberastasuna sortzen
dutenak eta lanpostu eta soldata onak sortzen dituztenak"*

*"Nire ustez, **gure aberastasuna kudeatzen dutenen mende dago**, eta industria erakartzen badu, uste dut kudeaketak
eragina duela horretan, Ituna nola kudeatzen eta
gobernatzen den"*

*"**Ekonomia globalak ere zerikusi handia du**, baina aurkako fenomenoaren aurrean,
Euskadiko Ekonomia Itunak eragina du hainbat egoeraren aurrean, adibidez
COVIDaren, uholdeen eta antzekoen aurrean, eta emaitza hobea izan daiteke, nahiz
eta diru pila bat ordaindu behar izaten dugun"*

7. Euskadiko Ekonomia Itunari buruz gizarteak dituen iritziak

- Parte-hartzaileekin **gizarteko sinesmenen zerrenda** hau partekatu zenean, honako iritzi hauek jaso ziren:

- Ekonomia Ituna ezagutzen den zerbait da, baina **inork ez daki zehazki zertan datzan** ADOS
- Ekonomia Itunari esker, **Euskadiko ekonomiak hobeto funtzionatzen du** hori gabe baino ADOS
- Ekonomia Ituna **blindatu eta hedatu** egin behar da ADOS
- Sistema horrek **aurrerapena eta egoera nahiko positiboa** ahalbidetu dizkigu ADOS
- Ekonomia Ituna Estatuko gainerako erkidegoetakoa baino **finantzaketa-sistema hobea** da ADOS
- Ekonomia Itunaren bidez estatuari ordaintzen zaion **kupoa bidezkoa eta nahikoa** da ADOS

“Baina ez dakigu zenbateko zehatza, ez gara iristen datu makroekonomiko horietara”

- **Euskadiko egoera** ekonomikoa estatuko gainerako erkidegoetakoa baino **hobea** da, Ekonomia Itunari esker ADOS

“Beste faktore batzuek ere esku hartzen dute, eta munduko ekonomiaren egoeraren arabera ere aldatzen da”

- Euskadiko Ekonomia Itunaren balioa kontuan hartuta, **zerga gehiago ordaintzeko prest** egongo nintzateke EZ NAGO ADOS

“Dagoeneko nahikoa zerga ordaintzen ditugu”

- Ekonomia Ituna ondo ezagutzen ez badut ere, badakit gauza ona dela, eta **ez dut hobeto ezagutu behar** EZ NAGO ADOS

“Beharrezkoa da hobeto ezagutzea, garrantzitsua baita”

8. Euskadiko Ekonomia Itunaren prospektiba

- Etorkizunari begira, Euskadiko Ekonomia Ituna mantentzeak duen garrantzia azpimarratzen da, Euskadiren ongizatearen motor gisa duen pisuagatik. Gainera, herritarrak informatzearen garrantzia eta belaunaldi berriekin egin beharreko pedagogia areagotzeko beharra aipatzen dira.

ONGIZATEAREN MOTORRA DA

*“Duela urte batzuetatik hona, **etengabe ari zaizkio eskumenak transferitzen Euskadiri**, orain, portuak transferitu dira, eta, lehenago, espetxeak”*

*“Nire ustez, lehen aztertu ditugun arloak xehetasunez ikusi ondoren, **garrantzia emango zaio, pisu handia duelako**”*

INFORMATZEKO ETA IRAKASTEKO BEHARRA

*“Etorkizunean, gehiago informatu behar da gai horri buruz, **jendeak xehetasun handiagoz ezagutu behar duelako**, duen garrantziagatik”*

“Bizitzari aplikatutako ekonomia moduko bat jarri beharko lukete, eta hortik zertzeladak ematen joan, ezagutzen joateko”

- Belaunaldi berriei informazioa modu didaktikoan eta bisualean emateko beharra planteatzen da, jolas, erronka edo dinamika parte-hartzaileen bidez, eta Euskadiko Ekonomia Itunari buruzko **eduki erakargarriagoa** sortzeko aukera, sare sozialen bidez. Hezkuntza-etapan finantzei buruzko irakaspena urria dela aipatzen da, eta Euskadiko Ekonomia Ituna garrantzizko alderditzat hartzen da, adibide ulergarrien bidez ezagutzera eman beharko litzatekeena, **gazteenek txikitatik parte har dezaten**.

*"Ikasleen arteko erronka gisa egin daiteke, gai hori **dinamika praktikoen bidez lantzeko, jolas moduan**"*



*"Uste dut **zirkulazio-seinaleen antzeko zerbait** izan beharko litzatekeela, txikitatik ezagutu behar den gauza bat"*

*"**Fikziozko ekintzak edo simulazioak** erabiliz gero, erakargarriagoa izango litzateke"*

*"Eskolako ikasgairen batean eman beharko litzateke, **gutxienez entzun dezaten**"*

- Euskadiko Ekonomia Itunak etorkizunean izan ditzakeen mehatxuen aurrean, erantzunak aho batekoak dira: **haren iraupenaren alde borrokatzeko sentimenduak** agertzen dira, **sustrai identitario sakonak** dituen seinale.

*"Beste ikuspuntu bat bihotzarena da, ikurrinarekin edo lauburuarekin bezala gertatzen da. **Euskalduna zarenez, kendu ezin dizuten zerbait da**, zurea den zerbait da, eta ezin dizute kendu"*

"Erabat defendatuko nuke, batez ere etorkizuneko belaunaldietan eta haien zat duen garrantzia pentsatuta, gero eta bizitza hobea izateko"



*"Kosta ahala kosta defendatu beharreko lorpena da, **urteetan borrokatu delako** horren alde, eta **pixkanaka eskumen berriak eskuratzen** joan direlako"*

*"Mehatxatuta balego, **atsedenik gabe borrokatuko nuke** horren alde, **historikoki hamarkada asko behar izan baitira** hori lortzeko, eta beti borrokatu dugu horren alde"*

9. Euskadiko Ekonomia Itunari buruzko ondorio orokorrak



Nortasun eta kontzientzia kolektiboa

Euskadiko Ekonomia Ituna balio bereizgarri, pribilegio historiko eta autogestioaren sinbolo gisa ikusten da, eta sakon txertatuta dago euskal gizartean.



Ezagutza urria oro har

Euskadiko Ekonomia Itunari buruzko ezagutza azalekoa da; ezjakintasuna handiagoa da gazteen artean, eta interes eta informazio falta dute.



Pribilegio egonkortzat hartzen da

Egonkortasuna sortzen duen pribilegio ekonomiko gisa ikusten da, eta autogobernuarekin, euskal nortasunarekin eta foru-erakundeekin lotzen da.



Ongizatea eta bizi-kalitatea

Euskadiko Ekonomia Ituna Euskadiren bizi-kalitatearekin, zerbitzu publikoekin eta ongizatearekin lotzen da, eta euskal autogobernuaren oinarria/zutabea/zutarria da gainerako guztiaren sorlekua.



Garrantzirik ez hauteskundeetarako

Euskadiko Ekonomia Ituna ez da elementu esanguratsutzat hartzen botoa emateko orduan, beste alderdi batzuk lehenesten baitira.



Kanpoko pertzepzio kritikoa

Estatuaren gainerakoan, pribilegio eskusibo eta egoistatzat hartzen da, eta euskal gizarteak, berriz, sistema ekonomiko garrantzitsuago moduan ikusten du.



Gizarte-sinesmenak

Euskadiko Ekonomia Itunaren eraginkortasuna eta justizia balioesten dira, baina Euskadiko gizartea ez dago prest zerga gehiago ordaintzeko, eta ezagutza handiagoa eskatzen da.



Etorkizuna eta prospektiba

Ongizatearen eragile gisa ikusten da, gazteen artean zabaltzearen garrantzia azpimarratzen da, eta itunaren iraupenaren defentsa emozional irmoa egiten da, gure identitatean errotuta dagoelako.

a new space for analysis and influence

info@silvanmiracle.com
silvanmiracle.com

